

## GIL 54 Pobesko konglomeratuak



Pobeseko konglomeratuen ikuspegia, autopistako ebakian.

### Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 42° 48' 29,23 " N

Long.: 2° 54' 19,94" W

- **UTM koordenatuak:**

X: 507.723,23 m

Y: 4.739.511,32 m



### Nola iritsi

Hartu Bilbo-Zaragoza autobideko Subilla-Morillasko irteera, eta jo hegoaldera, Pobes herrirantz. Herrira iritsi aurretik, Baia ibaiaren harana estutu egiten da, eta haitzarte batean sartzen gara; haren irtengune nagusiak Oligozenoko alubioi-konoko konglomeratuak dira. Zenbait azaleramendu-puntu ageri dira; ikusgarriena Bilbo-Zaragoza autobidearen 55. km-an dago, haitzartearen ezkerrean, eta herriko errepidetik ikus daiteke.



Pobeseke konglomeratuetao kareharrizko harkosko biribildu handien xehetasuna.

## GILaren deskribapen laburra

Gutxi gorabehera Eozenoaren amaieran eta Oligozenoan, Eusko-Kantauriar arroaren inbertsioa gertatu zen. Konpresio-etapa horretan, iraupen laburreko eta/edo urtaroen araberrako ibai-lasterrek Ebroren arro sortu berrirantz garraiatzen zituzten sedimentuen iturri izan ziren sortutako erliebeak. Nola Eusko-Kantauriar arroaren hegoaldean hala Pirinioetako tolestura-katearen hegoaldean, alubioi-konoen sistemak garatu ziren; haien progradazioa konpresio-etapa nagusiek eta inguruko sistema hidrikoaren aldaketek baldintzatzen zuten. Eusko-Kantauriar arroaren zenbait puntutan, alubioi-kono horiek diskordantzia progresibo sintektonikoak dituztela ikusten da. Pobesen, Santoniarreko tuparrien gainean kokatuak daude, eta, bai ekialdeko bai mendebaldeko datu estratigrafikoetan oinarrituta (hurrenez hurren, Okinako eta Villarcayoko ebakiak, non iraun egin baitute Campaniar-Paleozenoko serieek), horrek adierazten du badagoela Campaniarretik Paleozenora bitarteko higadura-hutsune bat gutxienez.

Etapla tektoniko garrantzitsu batean garatu ziren halako sistema sedimentarioen azaleramendu oso onak ikus daitezke Pobesen. Kasu honetan, alubioi-konoak dira, hegoalderantzko dispersioa dutenak, Miranda-Trebiñuko sinklinalaren iparraldeko alpean garatutakoak; haien "hegoaldeko sistema bikiak", dispersioa iparralderantz dutenak, sinklinalaren hegoaldeko alpean daude. Alubioi-konoen garapenaren etaparen ondoren, aintzira- eta ibai-sistemak garatu ziren Miranda-Trebiñuko sinklinalaren nukleoan, eta etapa berria tektonikoki nahiko geldia izan zela adierazten du garapen mota horrek; fazies horiek Pobeseke hegoaldean azaleratzen dira, ebaki berezietan, bereziki pista eta errepideen ezpondetan (ikus Gehaltza Añanako GILa; diapiroaren ertzeko azaleramenduetako ibai-aintziretako faziesak, unglatuen iknitak dauzkatenak).

## Behatzeko punturik onena

Errepideko ezpondan. Arriskutsua da. Sistema osoaren ikuspegi zabalagoa dago Pobes herriaren gainetik.

## Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 29, GIL 58, GIL 142, GIL 143, GIL 116, GIL 78, GIL 130.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 46, GIL 47.

## GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
<b>Interes zientifikoa</b>	Geomorfologikoa				
	Hidrogeologikoa				
	Tektoniko/Estrukturala				
	Estratigrafikoa			●	
	Paleontologikoa				
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
<b>Interes ekonomikoa (erauzketa)</b>			Iraganean	Potentziala	Martxan
<b>Interes kulturala:</b>					
<b>Oharrak:</b>					

## Bibliografia espezifikoa

- Fernández Carrasco, J., Cerezo Arasti, A. eta Zapata Sola, M. 1991. *Euskal Autonomia Erkidegoko mapa geologikoa 1:25.000 eskalan, 137-II orria (Erriberagoitia)*. ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA (EEE), Bilbo.